

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2011



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.
Probaren iraupena: 45 minutu.

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Zergatik bizi dira luzeago emakumeak? (<http://www.zientzia.net/> gunetik moldatua)

Emakumeak gizonak baino luzeago bizi direla ez da berria. Egun, batez beste, bospasei urte gehiagoz bizi dira; 85 urteren bueltan dabiltzan sei emakumeren aurrean lau gizoneko aurki genitzake, eta, 100 urteei begira jarriz gero, aldea are nabarmenagoa da. Zergatik, ordea? Azkenaldian indartzen ari diren hipotesien arabera, azalpena gure biologiaren sakonean dago.

Gizonezkoak lehenago hiltzeko **joeraren** oinarrian askotan aipatu dira, arrazoi gisa, haien lan-jarduera gogor edo estresagarriak. Baina azken urteotan indargabetuz joan da teoria hori, **nolabait**, emakumeek egun lan-munduan (etxetik kanpo zein barruan) duten presentzia eta ardurak direla eta.

Beste hipotesi baten arabera, emakumeak luzeago bizi dira, gizonak, **oro har**, joera handiagoa dutelako ohitura osasungaitzak izateko (tabakoa eta alkohola, kasu); elikadura ez dutela horrenbeste zaintzen ere **maiz** aipatu izan da. Baina teoria horrek badu kontraesanik: **besteak beste**, emakume erretzaileen kopuruak gora egin du, askok alkohola kontsumitzen dute, eta bada elikadura asko zaintzen ez duenik ere.

Gainera, luzeago bizi diren arren, zergatik izaten da **kaskarragoa** emakume adindunen osasuna adin bereko gizonena baino? Eta gainerako animalia gehienetan ere emeen **biziraupena** hobea izatea kasualitate hutsa al da? Bada, **dirudienez**, bizimodua eta ohiturak baino harago doan zerbaitetan bilatu behar da horren guztiaren azalpena.

Newcastle Unibertsitateko Tim Kirkwood gerontologo eta irakaslearen ustez, gure unibertso biologikoaren sakonean dago azalpena; **bizi-itxaropenari** dagokion ezberdintasuna jenero bakoitzaren konposizio genetikoari zor zaiola uste du. **Alegia**, Kirkwoodek dioenez, gizonezkoen gorputzeko zelulak ez daude genetikoki programatuta hainbeste urtez bizirauteko. Nolabait esatearren, eboluzioaren ikuspegitik "beharrezkoagoak" direlako bizi ohi dira emakumeak luzeago.

...

Beste espezie gehienetan ez ezik, gizakion artean ere oso garrantzitsua da emakumeen gorputzaren egoera ugalketaren arrakasta **bermatzeko**: "umekia amaren umetokian hazten da, eta amak eman behar izaten dio gero bularra. Beraz, amaren gorputza larregi kaltetua egotea arriskutsua da **ondorengo** osasuntsuak izateko. Gizonak ugalketan betetzen duten funtzioa, **berriz**, ez dago hain lotua osasun-egoerarekin. Gainera, testosterona-kantitate handiek gizonen ugalkortasuna handitzen dute, baina kaltegarria da luzaroan bizirauteari dagokionez".



4. Eman testuan letra lodiz nabarmenduta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (2 puntu)

| | |
|--------------------|--|
| joera | |
| maiz | |
| kaskarragoa | |
| bermatzeko | |
| umekia | |
| ondorengo | |

5. Testuan zenbait espresio daude kolore grisez nabarmenduta. Espresio horien funtzioa esaten dena modulatzeari, antolatzeari, ideia edo adibide berriak txertatzea...da.

Lotu nabarmendutako espresio horiek (lehen zutabea) testuan betetzen duten funtzioarekin (bigarren zutabea): (1 puntu)

| Espresioak | Esanahia edo funtzioa |
|---------------|--|
| nolabait | Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azaldutakoa argitu edo osatzeko erabiltzen da. |
| oro har | Gauza bat horrela dela kontsideratzeko aztarnak daudela adierazteko erabiltzen da. |
| besteak beste | Kasu partikularretan erreparatu gabe, gehienetan egia dela adierazteko erabiltzen da. |
| dirudenez | Lehen esandakoarekin kontrastea suposatzen duen zerbait aurkezteko erabiltzen da. |
| alegia | Aipatu daitezkeen beste gauza batzuen artean bat aukeratzen dela adierazteko erabiltzen da. |
| berriz | Zehazki nola adierazi gabe, ondoren esaten dena lehen aipatutako tesia justifikatzeko balio duela adierazten du. |



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2011ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2011

EUSKARA

6. Testua sei paragrafotan antolatuta dago. Beheko taulan adierazi paragrafo horietako bakoitzaren gai nagusia esaldi labur baten bidez, adibidean egiten den bezala. (2 puntu)

| Paragrafoa | Gai nagusia |
|-------------------|---|
| 1. Paragrafoa | Testuan zehar gero garatuko den tesia laburtzen da. |
| 2. Paragrafoa | |
| 3. Paragrafoa | |
| 4. Paragrafoa | |
| 5. Paragrafoa | |
| 6. Paragrafoa | |



Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.
Probaren iraupena: 45 minutu.

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Zergatik bizi dira luzeago emakumeak? (<http://www.zientzia.net/> gunetik moldatua)

Emakumeak gizonak baino luzeago bizi direla ez da berria. Egun, batez beste, bospasei urte gehiagoz bizi dira; 85 urteren bueltan dabiltzan sei emakumeren aurrean lau gizoneko aurki genitzake, eta, 100 urteei begira jarriz gero, aldea are nabarmenagoa da. Zergatik, ordea? Azkenaldian indartzen ari diren hipotesien arabera, azalpena gure biologiaren sakonean dago.

Gizonezkoak lehenago hiltzeko **joeraren** oinarrian askotan aipatu dira, arrazoi gisa, haien lan-jarduera gogor edo estresagarriak. Baina azken urteotan indargabetuz joan da teoria hori, **nolabait**, emakumeek egun lan-munduan (etxetik kanpo zein barruan) duten presentzia eta ardurak direla eta.

Beste hipotesi baten arabera, emakumeak luzeago bizi dira, gizonak, **oro har**, joera handiagoa dutelako ohitura osasungaitzak izateko (tabakoa eta alkohola, kasu); elikadura ez dutela horrenbeste zaintzen ere **maiz** aipatu izan da. Baina teoria horrek badu kontraesanik: **besteak beste**, emakume erretzaileen kopuruak gora egin du, askok alkohola kontsumitzen dute, eta bada elikadura asko zaintzen ez duenik ere.

Gainera, luzeago bizi diren arren, zergatik izaten da **kaskarragoa** emakume adindunen osasuna adin bereko gizonena baino? Eta gainerako animalia gehienetan ere emeen **biziraupena** hobea izatea kasualitate hutsa al da? Bada, **dirudienez**, bizimodua eta ohiturak baino harago doan zerbaitetan bilatu behar da horren guztiaren azalpena.

Newcastle Unibertsitateko Tim Kirkwood gerontologo eta irakaslearen ustez, gure unibertso biologikoaren sakonean dago azalpena; **bizi-itxaropenari** dagokion ezberdintasuna jenero bakoitzaren konposizio genetikoari zor zaiola uste du. **Alegia**, Kirkwoodek dioenez, gizonezkoen gorputzeko zelulak ez daude genetikoki programatuta hainbeste urtez bizirauteko. Nolabait esatearren, eboluzioaren ikuspegitik "beharrezkoagoak" direlako bizi ohi dira emakumeak luzeago.

...

Beste espezie gehienetan ez ezik, gizakion artean ere oso garrantzitsua da emakumeen gorputzaren egoera ugalketaren arrakasta **bermatzeko**: "umekia amaren umetokian hazten da, eta amak eman behar izaten dio gero bularra. Beraz, amaren gorputza larregi kaltetua egotea arriskutsua da **ondorengo** osasuntsuak izateko. Gizonak ugalketan betetzen duten funtzioa, **berriz**, ez dago hain lotua osasun-egoerarekin. Gainera, testosterona-kantitate handiek gizonen ugalkortasuna handitzen dute, baina kaltegarria da luzaroan bizirauteari dagokionez".



GALDERAK

1. **Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, erabilera eremua, testu-tipoa, testu-generoa...) eta arrazoitu zeure erantzuna. (2 puntu)**

Testua zientzia dibulgaziokoa da. Igorlea testuak jorratzen duen gaien aditua den pertsona edo entitatea da. Testua Web leku batean publikatu da, baina prentsan ere izan zitekeen. Testu hau, gainera, artikulutzat har daiteke, izan ere, aurkezten den tesia defendatu egiten baita. Hartzailea pertsona arrunta da, hau da, ez da zertan aditua izan behar, baina bai zientzia gaien inguruan interesa duen pertsona. Testua azalpenezkoa da baina argudioa ere erabiltzen da.

2. **Aukeratu, ondokoen artean, testuaren helburua. (1 puntu)**

- a. **Emakumeek zergatik luzeago bizi diren azaltzeko teoria alternatibo bat zabaltzea.**
b. Emakumeak gizonak baino luzeago bizi direla adieraztea.
c. Emakumeak gizonak baino luzeago bizitzeko genetikoki programatuta daudela frogatzea.

3. **Esan testuak dioenaren arabera honako esaldiak egiazkoak ala gezurrezkoak diren (testuan esaten ez dena gezurtzat hartu behar da). Markatu erantzun egokia gurutze batez. (1,5 puntu)**

Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (0,5 puntu).

| Esaldia |
|---|
| 85 urteren bueltan dauden 10 pertsonatik 6 emakume dira. |
| Gizonek, oro har, ohitura osasungaitzagoak dituzte, eta horregatik bizitza laburragoa dute. |
| Adineko emakumeen osasuna adin bereko gizonena baino kaskarragoa da. |
| Tim Kirkwood-en arabera emakumeen bizi-itxaropen handiagoaren kausa gizon eta emakumeen konposizio genetikoki ezberdinari zor zaio. |
| Gizonezkoen gorputzeko zelulak urte gutxi irauteko programatuta daude. |

| Egia | Gezurra |
|------|---------|
| X | |
| | X |
| X | |
| X | |
| | X |



Beste espezie gehienetan gertatzen denaren kontra, gizakiaren kasuan emakumeen gorputzaren osasuna oso garrantzitsua da ugalketaren eraginkortasunerako.

| | |
|--|---|
| | X |
|--|---|

4. Eman testuan letra lodiz nabarmenduta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (2 puntu)

| | |
|--------------------|---|
| joera | Jite, tendentzia, inklinazioa, ... |
| maiz | Sarri, sarritan, askotan, frankotan, hainbatetan, ... |
| kaskarragoa | Txarragoa, eskasagoa, makalagoa, ... |
| bermatzeko | Garantizatzeko, ziurtatzeko, baiesteko, ... |
| umekia | Fetua, enbrioia, ... |
| ondorengo | Oinordeko, seme-alabak, ... |

5. Testuan zenbait espresio daude kolore grisez nabarmenduta. Espresio horien funtzioa esaten dena modulatzeari, antolatzeari, ideia edo adibide berriak txertatzeari...da.

Lotu nabarmendutako espresio horiek (lehen zutabean) testuan betetzen duten funtzioarekin (bigarren zutabea): (1 puntu)

| Espressoak | Esanahia edo funtzioa |
|-------------------------|--|
| 1-nolabait | a- Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azalduetakoa argitu edo osatzeko erabiltzen da. |
| 2-oro har | b- Gauza bat horrela dela kontsideratzeko aztarnak daudela adierazteko erabiltzen da. |
| 3.-besteak beste | c- Kasu partikularretan erreparatu gabe, gehienetan egia dela adierazteko erabiltzen da. |
| 4.-dirudienez | d- Lehen esandakoarekin kontrastea suposatzen duen zerbait aurkezteko erabiltzen da. |
| 5-alegia | e- Aipatu daitezkeen beste gauza batzuen artean bat aukeratzeko dela adierazteko erabiltzen da. |
| 1-nolabait | f- Zehazki nola adierazi gabe, ondoren esaten dena lehen aipatutako tesia justifikatzeko balio duela adierazten du. |

1-f; 2-c; 3-e; 4-b; 5-a; 6d



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2011ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2011

EUSKARA

6. Testua sei paragrafotan antolatuta dago. Beheko taulan adierazi paragrafo horietako bakoitzaren gai nagusia esaldi labur baten bidez, adibidean egiten den bezala. (2 puntu)

| Paragrafoa | Gai nagusia |
|---------------|--|
| 1. Paragrafoa | Testuan zehar gero garatuko den tesia laburtzen da. |
| 2. Paragrafoa | Hipotesi tradizionala indargabetuz joan da azken urteotan. |
| 3. Paragrafoa | Beste hipotesi bat ere kontraesanak dituela esaten da. |
| 4. Paragrafoa | Zenbait galdera erantzuteko teoria berri baten beharra dagoela esaten da. |
| 5. Paragrafoa | Emakumeen biziraupen luzeago azaltzeko Tim Kirkwood-en hipotesia aurkezten da. |
| 6. Paragrafoa | Hipotesi hau indartzen duten arrazoi gehiago aurkezten dira. |



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2011ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2011

EUSKARA

**GALDERA ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN
ARTEKO HARREMANA**

| GALDERA | EZAGUTZA ADIERAZLEAK |
|----------------|--|
| 1 | 3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak eta horien formatua antzematea. |
| 2 | 3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea. |
| 3 | 3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea. |
| 4 | 3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri hizkuntzakoak (lexikoak), antzematea. |
| 5 | 3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak, antzematea. |
| 6 | 2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea. |